



BERAKO KULTUR GUNEA ERABILTZeko ARAUDIA

1. Definizioa

2. Ordutegia

- **Kultur etxea**
- **Herri liburutegia**

3. Jarduerak

4. Guneak

- **Herri liburutegia**
- **Areto nagusia**
- **Erakusgela**
- **Erabilera anitzeko gela (Bera-landeta)**
- **Biltegiak eta kontrol gela**

5. Erabiltzaileak

6. Erabiltzeko irizpideak

- **Areto nagusia**
- **Herri liburutegia**
- **Erakusgela**
- **Erabilera eskusiboko guneak: biltegiak eta gela ttikiak**

7. Zehapenak

1. DEFINIZIOA

Kultur etxea Berako Kultur etxea Udalarena da eta honek kudeatzen du zuzenean. Kultura sustatzeko asmoarekin sortua da; baita partaidetzarako bidea emateko eta Berako biztanleen erreferentzia soziokulturala bilakatzeko ere.

Kultur etxea batez ere musika, antzerki, dantza, zinematografia eta plastika arloetan kultur jarduerak sustatzeko erabiliko da eta, noizean behin, ez aipaturiko bertzelako jardueretara ere zuzendu ahal da.

Udala, Berako Kultur Batzordearen bidez, Kultur etxean eginen diren ikastaro, jarduera eta ikuskizunen antolakuntza, kudeaketa eta jarraipenaz arduratuko da.

Kultur etxea ez da Berako inolako talderen egoitza finkoa izanen.

2. ORDUTEGIA

Kultur etxea

Kultur Etxeak ez du ordutegi finkorik. Beharren arabera finkatuko da ordutegia. Kontuan izaki Kultur etxeak arduradun bakarra duela, Berako Udalak ateak irekitzeko eta ixteko ardura erabiltzaileengan utzi ahal du.

Herri liburutegia

Astelehenetik ortzirralera:

- *Neguko ordutegia* (azaroaren 15etik ekainaren 15era arte guti goiti-beheiti):
15:00 - 21:00
- *Udako ordutegia* (ekainaren 15etik urriaren 15era arte guti goiti-beheiti):
8:30-14:30

Liburutegiaren ordutegia Nafarroako Gobernuak ezartzen du. Literatura eta irakurzaletasuna bultzatzeko ekitaldiekin loturiko emanaldiengatik (solasaldiak, lantegiak, animazioa...) baino ezin da ordutegia aldatu, aitzinetik Nafarroako Gobernuaren oniritziarekin.

3. JARDUERAK

Funtsean Kultur etxeko jarduerak honelakoak izanen dira: kulturalak, artistikoak, edukatiboak, soziokulturalak eta ludikoak; esate baterako:

- Antzeppen edo dantza saioak.
- Bertsolaritza.
- Solasaldiak eta mahai-inguruak.
- Kontzertuak, entzunaldiak.
- Zinema, bideo eta ikus-entzunezko proiektzioak.
- Ikastaroak/lantegiak, mintegiak edo solasaldiak.
- Erakusketak.

Aipaturiko jarduera hauek guztiak izanen dira lehentasuna izanen dutenak.

Erabilera horiek ez dituzten bertzelakoak saihestuko dira (merkataritza eta enpresari loturikoak, batik bat), baina salbuespenak aztertzeaz zinegotziak arduratuko dira.

4. GUNEAK

Kultur etxean ondoko gune hauek ditugu:

Herri liburutegia

Nafarroako Gobernuko Liburutegi Sarerako gune bat erakunde honen erabilera eskusiborako utziko da, indarreko hitzarmenaren arabera; honek zehaztuko du jendaurreko ordutegia.

Areto nagusia

Funtsean arte zabalkundeko (musika, antzerkia, dantza, zinema) udaleko programaren kokalekua izanen da. Zehatz-mehatz ondoko hau ikusi ahal izanen dugu:

- Antzezlanak.
- Musika emanaldiak.
- Zinema proiektzioak.
- Bertzelako erabilerak: jaialdiak, sari banaketak, solasaldiak, etab.
- Gune hau elkarte eta taldeei utzi ahal zaie euren berezko jarduerak egiteko.

Salbuespen gisa eta gune baten beharra izanez gero, izaera politiko edo sindikaleko jardura edo bilerak ere egin ahal dira; betiere, Udalaren onospena izaki.

Erakusgela

Batez ere erakusketetarako erabiliko da. Gela honetan ondoko erakusketa hauek ikusi ahal izanen dira:

- Udalak berak antolatutako erakusketak.
- Elkarrekin eta taldeekin programatutako erakusketak.
- Entitate eta elkarten bitartez eskainitako erakusketak.

Erabilera anitzeko gela (Beralandeta)

Funtsean ondoko jardura hauek egingen dira:

- Zinema, bideo eta ikus-entzunezko proiektzioak.
- Solasaldiak eta mahai-inguruak.
- Formatu ttikiko ikuskizunak.
- Taldeen ohiko funtzionamendurako lan-bilerak.
- Ikastaroak eta lantegiak.
- Gisa berean, hemen elkarten bilerak eta ekitaldiak (auzokoak, kulturalak, kirolekoak, etab.), baita sindikatu eta politikarienak ere egingen dira.

Biltegiak eta kontrol gela

Kultur etxeko berezko materialen biltegia izateko balio izanen du. Udalarena baino ez den materiala gordeko da bertan.

Geletako teknikariak edota Udaleko langileak baino ez dira sartu ahalko.

5. ERABILTZAILEAK

Kultur etxeko jardueretan, zerbitzuetan eta ikastaroetan parte hartzen duten irakurlea, ikusle edota parte-hartzaile gisa honen erabiltzailetzat hartuko dira.

Erabiltzaileen betebeharrak ondoko hauek izanen dira:

- Areto eta gela guztietan debekatua egonen da erretzea.
- Lehen batean, areto eta gela guztietan debekatua egonen da jatea eta edatea, Berako Kultur Batzordeak egokia ikusten duen kasuetan izan ezik.
- Lokalaren garbitasuna, ez erretzeko guneak eta paperontzi eta hautsontzien erabilera errespetatu.
- Leihatilako ordutegiak errespetatuko dira.
- Paratzen diren ordutegiak begiratu egingen dira.
- Animaliak sartzea debekatua egonen da kasu guztietan.
- Aktore eta bertzelako ikusleekiko errespetua dela-eta, puntualtasuna eskatzen da. Sakelako telefonoa eta erlojuen ordu seinaleak eta edozein alarma deskonektatuko dira eta isilean egonen da.
- Behin ikuskizuna, emanaldia edo proiektzioa hasi ezin izanen da gelan sartu.
- Programatutako jarduera/emanaldietan ekintza bakoitzaren adina argi adieraziko da. Ez bada deus ere aipatzen publiko guztientzako dela erran nahiko du. Kasu egin, faborez.
- Lokalaren garbitasuna eta txukuntasuna errespetatuko da, erabileraren ondotik bertzelako eskatzaileek erabili ahal dezaten.
- Kultur etxeko langileek adierazitakoari arreta jarri.
- Berako Udalak sartzea ukatzeko eskubidea du aitzinetik errandakoa errespetatzen ez dutenei. Guneen erabilera makurrak kanpora bidaltzeko bidea eman ahalko du.

6. ERABILTZEKO ETA UZTEKO IRIZPIDEAK

Berako kultur taldeek eta sortzaileek izanen dute lehentasuna espazio hauen erabileran. Aretoa uzteko orduan erabateko lehentasuna izanen dute hauek. Edonola ere, bertze artista batzuei ere zabalduko zaie eskaintza hau, Bortzirietakoei, bereziki.

Areto nagusia

- Aretoaren eta bere ekipamenduaren erabilera puntuala da baimentzen dena.
- Baimenak emateko orduan, Berako Udalak antolatutako edo babestutako ekitaldiek lehentasuna izanen dute.
- Ez da onartuko edukiera baino pertsona gehiago sartzea (202 eserleku). 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa.
- Ordainpeko jardueretan ezinbestekoa da sarrera ekartzea aretoan sartzeko.
- Grabazioak eta argazkiak: debekatuta dago aretoen barruan filmatzea edo grabatzea.
- 6 urtetik beheitikoak: heldu batekin sartu beharko dira.
- Sarrera eta irteerak tamaina handiko trabarik gabe egonen dira (aulkitxoak, poltsak, etab.). 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa .
- Ekitaldietan larrialdi irteerek ez dute trabarik izan beharko. 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa.
- Berako elkarte eta taldeek lehentasuna izanen dute.

- Berako irabazi asmorik gabeko gizarte, kultura eta kirol izaerako elkarte, auzo-komunitate edo entitateei bakarrik emanen zaie baimena.
- Ekitaldia gizarte, kultura edo kirol izaerakoa izan beharko da, eta Kultur etxearentzat interesgarria, beraren programazioaren arabera.
- Bertzelako entitate eta elkarteek ezin izanen dute Kultur etxea erabili; ezta tasa bat ordainduta ere, salbuespenak salbuespen.
- Berako elkarteek sustatutako ekitaldietan ohiko gastuak (garbiketa, ura, kalefakzioa, etab.), material osagarriren gastua (mikrofonoak, ekipo teknikoa, etab.) eta soinu-tapen, proiektzio edo argiztapen teknikarien gastua Berako Udalaren gain geratuko dira, baldin eta Berako Kultur Batzordeak diruz lagundutako ekitaldiak diren. Bertzelako ekitaldietan —hau da, diruz lagunduak ez direnak— gastu guztiak Udalak ordainduko ditu teknikari eta material tekniko osagarriren gastuak izan ezik —hauek elkartearen gain geratuko dira—. Gauza bera gertatuko zaie ikastetxe eta institutuari, musika eskola, haurtzaindegi edo Udalak osatzen duen edozein partzuergo, mankomunitate edo sozietate autonomoi. Gestio tekniko guztiak nahitaez Udalak kontratatutako enpresarekin egin beharko dira eta ekitaldi guztietan gela teknikariak joan beharko du.
- Elkarteek zein sozietateek ezin izanen dute material teknikoa erabili (dimerra, mikroak, proiektagailua, nahasketa-mahaia, etab.). Ikus-entzunezko materialaren erabilera Udalak kontratatutako langileen gain geratuko da soilik.
- Kultur etxea erabiltzen duten talde zein norbanakoek berau zaintzeko eta txukun eta garbi mantentzeko konpromisoa hartuko dute. Erabilera kaskarraren ondorioz sortutako kalteak bere gain hartuko ditu taldeak, eta arazoaren larritasunaren arabera ukatu egingen da Kultur etxerako sarbidea.
- Elkarte edo entitate batek kultur etxea erabiltzeko baimena jaso arren, Kultur Batzordearen programazioak izanen du lehentasuna Kultur etxea erabiltzeko tenorean.
- Erabiltzaileraren esku paratuko dira Kultur etxeak dituen azpiegitura guztiak.
- Lehen batean —ez bada bertzelako akordio batera ailegatzen— ekitaldiaren sarrerekin lortutako dirua Udalaren esku geratuko dira.

– *Bilerak egiteko:*

Pribatuak diren bileretarako, lehenago aipaturiko entitate eta elkarteek gain, pertsona fisikoak ere baimendu ahal izanen dira, bilerak kultur, gizarte edo kirol izaera baldin badu. Gisa berean, auzo komunitateei ere baimena emanen zaie.

– *Hauteskunde kanpainetarako:*

Alderdi politikoek eta sindikatuak kultur etxea erabiltzeko aukera izanen dute aipatutako elkarteak bezalaxe.

– *Ekitaldi zibilak:*

Araudi bat prestatu nahi dugu ekitaldi zibilen gainean (ezkontzak eta hiletak). Akaso horiek ere salbuespen bezala sartu beharko genituzke.

– *Alokairuak:*

Araudi honetatik kanpo geratzen diren ekitaldiak ezin izanen dira egin Berako Udaleko kultur gunetan, ezta alokairu bat kobratuta ere.

Erabilera anitzeko gela (Beralandeta)

Oro har, areto nagusirako paratu diren baldintza berberak paratuko dira gela ttikien kasuan.

Pertsona fisikoek, elkarteek eta enpresek euren zerbitzua (ikastaroa, tailerra, etab.) eskaini ahal izanen dute Beralandetan (doan), baldin eta zerbitzua prezio herrikoietan paratzen badute (Udalak ebatziko du honen inguruan).

Herri Liburutegia

- Berako Herri Liburutegiak berak antolatzen dituen edo partaidea den ekitaldietarako erabiliko da.
- Berako Liburutegiak interesgarritzat jotzen dituen liburu edo literatura munduarekin lotutako ekitaldietarako ere erabili ahal izanen da.
- Liburutegiko ekitaldiak (liburu aurkezpenak, ipuin kontalariak, etab.) liburuzainaren ordutegira egokitu beharko dira; bertzenaz, ezin izanen dira egin.
- Liburutegian ezin izanen dira egin ez bilerarik, ez ikastarorik.

Mailegu zerbitzuaren arauak

- Mailegu zerbitzua erabiltzeko bazkide txartela izatea beharrezko izanen da. Horretarako liburutegian dagoen eskaera orria bete behar izanen duzu, argazki ttiki bat ekarri eta nortasun-agiria (NA) erakutsi.
- Hamalau urte baino gutiago dutenek guraso edo arduradunen baimena ekarriko dute, eta horretarako dugun inprimakia bete.
- Bazkide txartela doakoa izanen da.
- Maileguaren ordutegia liburutegia itxi baino ordu laurden bat lehenago bukatuko da.

Oharra: ezinbestekoa izanen da informazio gunetik pasatzea edozein dokumentu mota maileguan eramateko edo itzultzeko.

Internet zerbitzuari buruzko arauak

- Baimenak
 - 10 urte baino gutiago dutenek arduradun batekin etorri beharko dute.
 - 10-14 urte bitartekoek guraso edo arduradun baten baimen idatzia beharko dute (baimen inprimakia liburutegian duzue).
- Arauak
 - Interneten sartzeko prestatutako ordenagailuek informazioarekin, jakintzarekin eta ikaskuntzarekin loturiko gaiak bilatzea dute xede. Ez dira izanen jokoetan, lerroko tertulietan eta abarretan sartzeko.
 - Bertze erabiltzaileek bilatutako datuen pribatutasuna errespetatuko da beti.
 - Liburutegiak ez du erabiltzaileentzako posta elektronikoko konturik. Erabiltzaileek ma-kina bat orritan dituzte eskura doako kontuak, liburutegiko ordenagailuetan erabil ditzaten.

- Zerbitzuaren prezioa
 - Zerbitzua dohainik izanen da, inprimatzeak eta CD-R eta disketeen erabilera izan ezik.
 - Inprimatze, diskete eta CD-R-ren tarifak ezagutzeko galdetu liburutegian.

Oharrak:

- *Kanpoko disketeak edota CD-ROMak ezin izanen dira erabili.*
- *Disketea edota CD-R behar baldin baduzu liburuzainari eskatu.*
- *Ordenagailu bakoitzean gehienez bi lagun egon ahal izanen dira.*

Mailegua: liburuak, aldizkariak eta ikus-entzunezkoak

Helduen edo haur txartelarekin honako hau eraman ahal duzu:

- Hiru liburu, euskarazko edo gaztelaniazkoak.
- Aldizkariak: ale bat gibeleratua eraman ahal duzu.
- Ikus-entzunezko ale bat: bideoa, CDa, DVDa.

LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

- *Epeak*
 - Liburuak itzultzeko epea 21 egunekoa da, eta bertze 21 egunez luzatu ahal izanen da inork eskatzen duen bitartean. Epea luzatzeko liburua liburutegira ekarri beharko duzu.
 - Aldizkariak itzultzeko epea 7 egunekoa izanen da; epe luzaezina.
 - Itzultzeko epea akabatu ondotik, postaz edo telefonoz jakinaraziko dira atzerapenak eta zigortu eginen dira. Hagitz berandutzen denari, edo beti berandu dabilenari, bazkide txartela kendu eginen zaio.
- *Liburu bat galtzea*
 - Libururen bat galtzen baduzu, bertze bat erosi beharko duzu hilabete baten buruan liburutegira itzuli ahal izateko. Horrela egin ezean, ezin izanen da bazkide txartela erabili.
- *Liburuaren erreserba eta liburutegien arteko mailegua*
 - Liburutegian ez dagoen libururen bat behar izanez gero, erreserbatzeko aukera izanen duzu. Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko liburutegiren batean badago arduradunaren bitartez eskatzen ahal izanen da.
 - Bi liburuen erreserba egin ahal izanen duzu.
 - Liburutegira heltzen direnean deituko zaitugu.
 - Zazpi eguneko epea izanen duzu jasotzeko. Horrela egin ezean erreserba bertan behera utziko da.

Oharra: Liburutegiko arduradunak erabakiko du zeintzuk diren mailegatu ahal diren liburuak.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

– Epeak

- Liburuak itzultzeko epea 21 egunekoa da, eta bertze 21 egunez luzatu ahal izanen da inork eskatzen duen bitartean. Epea luzatzeko liburua liburutegira ekarri beharko duzu.
- Aldizkariak itzultzeko epea 7 egunekoa izanen da; epe luzaezina.
- Itzultzeko epea akabatu ondotik, postaz edo telefonoz jakinaraziko dira atzerapenak eta zigortu egingen dira. Hagitz berandutzen denari, edo beti berandu dabilenari, bazkide txartela kendu egingen zaio.

– Ikus-entzunezkoen galera

- Ikus-entzunezkoren bat galduz gero, bertze bat erosi beharko da hilabete baten buruan liburutegira itzuli ahal izateko. Horrela egin ezean, ezin izanen da bazkide txartela erabili.

Oharra: Liburutegiko arduradunak erabakiko du zeintzuk diren mailegatu ahal diren ikus-entzunezkoak.

Erakusgela

Berako Udalak erakusgela utziko du soilik izaera artistiko, kulturala eta artisau erakusketetarako. Erabiltzeko baldintzak ondoko hauek izanen dira:

– Eskaera:

Erakusketariak idatziz eskatuko du gela Herriko etxeko bulegoetan. Eskaearekin batera honako hau ere aurkeztu beharko da: historia profesionala, egindako erakusketak lortutako sariak, prentsako aipamen kritikoak, aitzineko erakusketen ereduak eta fotokopiak. Horrez gain, erakusgai paratuko diren lanen bortz argazki koloretan gutienezko tamaina 9x12 cm.

– Iraupena:

Erakusketaren iraupena gutienez 15 egunekoa izanen da eta gehienez 25 egunekoa. Data hauek guztiak Berako Kultur Batzordeak erabakiko ditu, kultur kudeatzaileak aitzinetik proposatuz. Data hauek gelako irizpide eta kalitatearen arabera erabakiko dira. Ordutegia publikoarentzako ikusgai paratuko da eta erakusketariak bere berri izanen du. Artistak ezinen du jarraian erakutsi, azkeneko aldiz paratu zuenetik bi urte tartekatuko dira eta lanak ezezaguna izan beharko du.

– Eskaera onartzea:

Eskaeren onespenerako kontuan hartuko dira ondoko hauek: erakusketariaren curriculum vitae-a, lanaren kalitatea, lanaren originaltasuna, etab.

Udalak eskatzaileari idatziz eskaeraren onspena eta erakusketa paratzeko datak berretsiko dizkio. Bere eskaerari erantzunez datak jasotzen dituen erakusketariak 15 egunen buruan bere adostasuna eman beharko du. Ez badu horrela egiten, emandako data ukatzen duela ulertuko da eta eskatutako urteko erakusketarien zerrendatik kenduko da aitzineko programazioaren segida ez aldatzeko. Edozein kasutan, gela Udalarena izaki eta kontuan hartuz ordezkutzen duen gizartea, zenbait lanen onarpen eskubidea gordetzen du.

– Garraioa:

Bidalketa eta itzultze gastuak erakusketariaren beraren gain geratuko dira, Berako Udalak horrela erabakitzen duenean izan ezik. Nahi izanez gero lana aseguratu ahal da. Udalak joan-etorrien garraioa edota lanen aseguratzea ordaintzea erabakitzen badu lehenagotik abisatuko du.

Berako Udalak artelanen kontserbaziorako zainketa ziurtatzeko ahaleginak egingen ditu, baina ez du erantzuten sor litezkeen lan suntsipen oso edo partzialen inguruan, istripu, ebaspen, sute eta abarreatatik sor litezkeenak.

– Muntaia:

Lanak gutienez erakusketa baino 48 ordu lehenago egon beharko dute Kultur etxean. Erakusketaren zainketa Berako Kultur Batzordeko elkarteko kideek egin beharko dute zehaztutako ordutegian. Berako Kultur Batzordeak ez antolatutako erakusketetan antolatzaileek eurek egin beharko dute.

Erakusketaria, edo erakundeak behar bezala onetsitako bertzelako ordezkaria, behartua dago erakusketaren muntaia eta desmuntaiatzeko arduratzera. Paretak hondatu ahal dituzten materialak ezin izanen dira erabili.

– Publizitatea:

Udalak erakusketa katalogo-kartel bat argitaratuko du erakusketariarekin adostua —edo azken honen esku utziko du berak bere aldetik eta bere kargu egiteko— eta herrian eta komunikabideetan iragarriko du. Udalak bidali ahal dizkie txartelak tokiko entitate eta elkarte kulturei eta korporazio ofizialei.

– Gelako gastuak:

Gelaren lagapena doakoa da, ez duelarik erakusketariaren eskutik inongo ordainketa kopururik jasoko zaintze, argi, garbiketa eta abarreatatik. Halere, artistak eta erakusketariak aitzinetik konpromisoa hartzen du Gelan erakusketako lan bat uzteko berau amaieran. Lan hau Udaleko pinakoteka osatzera pasatuko da. Bertzaldetik, lan hauekin gelak Nafarroan eta Nafarroatik kanpo erakusketa kolektiboak egiteko parada izatea nahi du.

Erakusketariak, aitzinetik baimendurik, berak egokiak deritzon segurtasun neurriak hartu ahal ditu. Honen inguruan pasatu ahal den edozein gertakari erakusketariak hartuko du bere gain, gelak ez duelarik inongo kalte-ordainik eman beharko.

Erabilera eskusiboko guneak: biltegiak

Noizean behin eta denboraldi baterako, eta betiere Berako Kultur Batzordeak onartzen badu, partikularrek Berako Udaleko biltegiak erabili ahal dituzte ondoko hau gordetzeko: lanabesak, materiala, material eszenografikoa, etab.

Guneak uzteko baldintzak

Instalazioak erabiltzeko eskaerak gutienez 7 egun lehenago entregatu beharko dira — bileretarako izan ezik; hauek egun berean eskatu ahal dira—. Berako Herriko etxeako bulegoetako Erregistroan aurkeztu behar dira idatziz.

Erabiltzaileen konturakoak izanen dira:

- Egile eskubideen ordainketa, dagokionean.
- Administrazioko baimenak.

- Udalak ez antolatutako ekitaldietan jarduera gauzatzeko beharrezko elementuen muntaia eta desmuntaia egin beharko dute, betiere denbora guztian udaleko langileen adierazpenak jarraikiz.
- Udaleko Zerbitzu Teknikoek uneoro ikuskatu ahal dituzte instalazioen muntai eta desmuntai operazioak.
- Jardueraren ondotik, antolatzaileak gauzak zeuden bezala utziko ditu.
- Kultur etxean eta liburutegian egindako ekitaldi guztien publizitatean Berako Kultur Batzordearen eta Udalaren logotipoa agertu beharko da, laguntzaile gisa.

7. ZEHAPENAK

Erantzukizunak, arau-haustek eta zehapenak

- Entitate antolatzaile guztiek euren gain hartuko dituzte eskatzen ahal zaizkien erantzukizun zibilak, penalak, administratiboak, lan edo zerga arlokoak, edo edozein tankeratakoak, eta euren kontura geldituko dira erantzukizun horietatik etortzen diren kalte eta galeren ordainak, Udala arruntean salbu geldituko baita horrelakoetatik.
- Entitate antolatzailea behartua dago Agintaritzari eta erakunde eskudunei beharrezko diren baimen guztiak eskatzera, egin nahi duen jarduerarako.
- Udalak ez du inongo erantzukizunik izanen jendeak egiten dituen gauzengatik, eta ez du nahitaez bat egin behar bertan adierazitako iritziarekin ere; izan ere, entitate antolatzailearena bertze inorena ez baita izanen erantzukizun hori.
- Arau-haustetzat joko dira:
 - Jabetzaren kontrako delitu eta hutsegiteak.
 - Instalazio eta zerbitzuen erabilera desegokia.
 - Baimendutako lokaletan ondare higigarri eta higiezinetan kalteak eragitea.
- Zehapenak paratuko dira kalte-galerengatik bidezkoa gertatzen den ordaindu beharrekotik aparte.
- Aipatutako erantzukizun eta zehapenak bide exekutiboaren bitartez gauzatu eta betearaziko dira.